

Euskal AEn, 2000-2006 urteen bitartean, osasun gastuaren urteko batez besteko hazkunde tasa %8,1 izan zen

Biztanleko osasun gastua %55 hazi zen aldi horretan, 2006an 2.002 eurora iritsi zelarik

2006an, Euskal AEn, 4.290 milioi euro gastatu ziren osasungintzan; alegia, 2005ean baino %7,9 gehiago, eta 2.002 euro *per capita*. 2000-2006 aldian, osasungintzaren gastuaren urteko batez besteko hazkunde tasa metatua %8,1 izan zen, Eustaten datuen arabera.

Gastuaren finantzazioari begiratuz gero, **Euskal AEn gastatutako 100 eurotatik 72,3 osasungintza publikoak ordaindu zituen, alegia, guztirakoaren %72,3** 2.000ko 1.956 milioietatik 2.006ko 3.096etara pasatu da gastu publikoa; urteko batez besteko tasa metatua %7,9ko hazkundea.

Erkatzen baditugu osasun gastu publikoa eta herri administrazioen gastu guztia ikusiko dugu zenbaterainoko ahalegina den lehenengo hori. 2.005ean %15,5 izan zen, 2000.aren aldean ia ehuneko puntu bat hazi zelarik. Ahalegin hau ELGEko herrialdeetakoaren batez bestekoaren inguruan dabil. Euskal administrazioak (Eusko Jaurlaritzak, Foru aldundiak eta udalak) bakarrik kontuan hartuz gero, **osasun gastu publikoa, gastu guztiaren aldean, %22,5ekoa izan zen.**

1. taula: Euskal AEko Osasun Kontuaren datu eta adierazle nagusiak.

OSASUN GASTUA GUZTIRA (milaka eurotan)	2000	2001	2002	2003	2004	2005 (a)	2006 (a)	Aldaketa tasa % 2006 (a) / 2005 (a)	Urteko batez besteko aldaketa tasa metatua (%) 2000-2006
GUZTIRA	2.694.954	2.910.002	3.119.748	3.419.076	3.667.365	3.975.721	4.289.783	7,9	8,1
Finantzazio publikoa	1.956.481	2.105.628	2.264.644	2.468.720	2.646.334	2.875.910	3.095.997	7,7	7,9
Finantzazio pribatua	738.473	804.374	855.105	950.357	1.021.031	1.099.812	1.193.786	8,5	8,3
Biztanleko gastua, guztira (eurotan)	1.296	1.389	1.476	1.614	1.726	1.862	2.002	7,5	7,5
Gastu guztia BPGren gainean %	6,47	6,62	6,75	6,94	6,88	6,94	6,95	0,01 p.p(*)	0,47 p.p(*)
Gastu publikoaren gaineko osasun gastua %	14,61	14,44	14,48	14,88	15,09	15,53	:	0,92	
BPG, m.p	41.647.287	43.930.667	46.226.280	49.241.753	53.305.396	57.289.143	61.763.759	7,8	6,8
Biztanleria	2.079.219	2.095.144	2.113.659	2.118.312	2.124.593	2.134.855	2.143.011	0,4	0,5

(a): Aurrerapena. * p.p. = Aldea, ehunekotan. (:) ez dago eskuragarri

Iturria: Eustat, Osasunaren Kontua

2. taula. Gastu adierazleak herrialdeka 2005. urtea

	Gastu publikoaren gaineko osasun gastua %	BPGren gaineko osasun gastu publikoa %	Gastu guztiaren gaineko osasun gastu publikoa %	BPGren gaineko gastu guztia	Biztanleko gastu guztia (EAP, US\$)	Biztanleko BPG (EAP,\$)
Alemania	17,6	8,2	76,9	10,7	3.287	30.776
Austria	15,5	7,7	75,7	10,2	3.519	34.394
Belgika (e)	14,9	7,4	72,3	10,3	3.389	33.021
Kanada	17,5	6,9	70,3	9,8	3.326	34.057
Danimarka (e)	14,4	7,7	84,1	9,1	3.108	34.110
Espainia (e)	15,4	5,9	71,4	8,2	2.255	27.400
Ameriketako Estatu Batuak	18,8	6,9	45,1	15,3	6.401	41.827
Finlandia	11,6	5,9	77,8	7,5	2.331	30.911
Frantzia	16,5	8,9	79,8	11,1	3.374	30.350
Grezia	11,5	4,3	42,8	10,1	2.981	29.578
Irlanda	17,0	5,8	78,0	7,5	2.926	39.019
Islandia	18,3	7,9	82,5	9,5	3.443	36.183
Italia	14,1	6,8	76,6	8,9	2.532	28.401
Norvegia	17,9	7,6	83,6	9,1	4.364	48.162
Portugal (e)	15,6	7,4	72,7	10,2	2.033	20.030
Erresuma Batua (d)	16,2	7,2	87,1	8,3	2.724	32.896
Suedia	13,6	7,7	84,6	9,1	2.918	32.111
Suitza	-	6,9	59,7	11,6	4.177	35.956
Euskal AE	15,5	5,0	72,3	6,9	2.446	35.242

EAP Eros ahalmenaren parekotasuna. z: zenbatespena. e: metodología ezberdintasunak

Iturria: EUSTAT, Osasunaren Kontua eta EKO-Osasungintza ELGE 2007 (2007ko ekaina)

Nazioarteko erkaketan, ELGEk eskainitako 2.005 urteko azken datu homogeneoei begiratzuz, Euskal AEko *per capita* osasun gastua 2.446 EAP (erosteko ahalmenaren parekotasuna dolarretan) da; Finlandia (2.331), Espainia (2.255) eta Portugal (2.033) azpitik daude. Gainera, AEB (6.041, mundu liderra), Norvegia (4.364) eta Suitza (4.177), esaterako. Europar Batasunean osasun gastu *per capita* handiena Austriak du, 3.519 EAP (\$).

Finantzazioari dagokionez, **Euskal AEn osasun gastu guztiaren %72,3 gastu publikoa da, inguruko herrialdeetan bezalatsu**. Osasun gastu publikoa Euskal AEn, administrazio publikoen gastu guztiaren gaineko %15,5 da. Belgika (14,9), Danimarka (14,4), Suedia (13,6) eta Espainia (15,4) azpitik daude.

Behar bezala kokatzeko Euskal AEko osasun gastua ELGEko herrialdeen artean, ikuspegia beste **eskaintza-adierazleekin** osatu behar da: biztanleko mediku kopurua, batez besteko egonaldia, kirurgia-interbentzioak; eta baita osasun adierazleekin ere, esaterako bizi-esperantza, hartara hobeto ezagutuko dugu osasun errealitatea. **Adierazle hauek azterturik, Euskal AE ELGEko herrialdeetako batez bestekoaren gainera dago**

3. taula: Egituraren, osasun jardueraren eta osasunaren adierazleak. 2005

	1.000 biztanleko medikuak	Akutuentzako ospitaleetako batez besteko egonaldia	Kirurgia interbentzioak / 1.000 biztanleko	Bizi esperantza
Alemania *	3,4	8,6	95,4	79,0
Espainia *	3,8	6,7	72,6	80,7
Suitza	3,8	8,5	142,4	81,3
Danimarka	3,6	3,5	148,5	77,9
Finlandia	2,4	4,8	102,9	78,9
Irlanda(b)	2,8	6,6	43,0	79,5
Luxenburgo	2,5	7,3	207,4	79,3
Portugal	3,4	7,1	59,5	78,2
Erresuma Batua	2,4	6,1	144,2	79,0
ELGE	3,0	6,3	100,9	78,6
Euskal AE	3,7	5,9	100,9	80,8

Kirurgia interbentzioak; 2004ko datuak. (b) kirurgia interbentzioak; haustura sailetan

Iturria: EUSTAT, Osasunaren Kontua eta EKO-Osasungintza ELGE 2007 (2007ko ekaina)

Euskal AEko osasun kontuen azterketa xeheago batek agerian jartzen du gastu arrunta %97,3 izan zela eta gainerako %2,7 kapital eraketa gordina (inbertsioa).

Gastu arrunta funtzioen arabera banatuz gero, %72,7 banakako osasun zerbitzuetarako izan zen. Hazkunderik handiena egonaldi ertain eta luzeko asistentzia sanitarioan gertatu da, zeina %13,7ko urteko tasa metatuz hazi da; funtzio honetan mendekotasun egoeren osasun gastuaren zatirik handiena dago.

Gastuaren garrantziaren aldetik bigarren funtzioa kanpo pazienteentzako produktuena izan zen, gastu arruntaren %22,9. Bi multzo hauek batuz banakako osasun gastua lortzen da, gastu arruntaren %95,6.


4. taula: Osasun gastua funtzioen arabera (milaka eurotan)

	milaka eurotan		Osasun gastu guztiaren gaineko %		2.000-2004 bitarteko aldea
FUNTZIOA	2000	2004	2000	2004	ehunekoak (*)
HC.1 Sendatzeko osasun-laguntza	1.442.134	1.894.203	53,5	51,7	-1,86
HC.2 Birgaitzeko osasun-laguntza	33.523	47.624	1,2	1,3	0,05
HC.3 Egonaldi ertaineko eta luzeko osasun-laguntza	238.516	398.307	8,9	10,9	2,01
HC.4 Osasun-zerbitzu osagarriak	179.079	254.976	6,6	7,0	0,31
HC.1 - HC.4 Banakako osasun zerbitzuak	1.893.253	2.595.111	70,3	70,8	0,51
HC.5 Kanpoko pazienteei emandako osasun-produktuak	590.873	817.731	21,9	22,3	0,37
BANAKAKO OSASUN GASTUA	2.484.125	3.412.842	92,2	93,1	0,88
HC.6 Prebentzio eta osasun publikoko zerbitzuak	45.110	52.630	1,7	1,4	-0,24
HC.7 Osasuneko administrazioa eta aseguruak.	61.700	97.844	2,3	2,7	0,38
Sailkatu gabea	3.388	5.531	0,1	0,2	0,03
OSASUNGINTZAKO GUZTIZKO GASTU ARRUNTA	2.594.324	3.568.847	96,3	97,3	1,05
Kapital-eraketa gordina	100.630	98.518	3,7	2,7	-1,05
OSASUNGINTZAKO GUZTIZKO GASTUA	2.694.954	3.667.365	100,0	100,0	0,00

*p.p. = Aldea, ehunekotan.

Iturria: Eustat, Osasunaren Kontua

1. grafikoa Osasun gastuaren banaketa hornitzaileen arabera



Iturria: Eustat, Osasunaren Kontua

Hornitzaileen araberako gastuak finko iraun du aztertutako aldian Gastu zatirik handiena (%40) ospitaleetan gauzatu da; ondoren asistentzia sanitario anbulatorioaren hornitzaileak datoz, %28. Egoitza eta erizaintzako instalazioak gastu arruntaren %9 izan ziren; azken lau urteetan gehien hazi den multzoa da, %13,3ko tasa metatuarekin (hemen sartu da mendekotasun egoeren gastua).

Ohar metodologikoa: Eustatek burututako 2000-2006 urte-sailean ELGEko "System of Health Accounts-SHA" metodologiaren arabera agertzen dira mendekotasunaren (long-term-care) gastu sanitarioen datuak.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Javier Aramburu

Tlf:+34-945-01 75 99 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp